

EUSKARA. Sagrario Aleman, Bernardo Atxaga eta Andoni Egaña daude, besteak beste, aholkulari berrien artean

Jaurlaritzak EAEko Euskararen Aholku Batzordeko kide berriak izendatu ditu

Batzordeko Administrazioz kanpoko kideen kopurua 30 lagunetan finkatu du Kultura Sailak

Erredakzioa | DONOSTIA

EAEko Euskararen Aholkularitza Batzordeko (EAB) kideek bilera egingo dute bihar, Juan Jose Ibarretxeren zuzendaritzapean, Lehendakariak Gas-teizen duen egoitzan, 12:30etik aurrera. Bilera horretan, orain artean aholkularitza batzorde horretako kide izan direnek lekukoa pasatuko diete «hizkuntzaren normalizazioan eragina duten sektoreetan sona handia izateagatik» Jaurlaritzak izendatutako Administrazioz kanpoko 30 kideei.

EABko kideon zerrenda berria gaurko Euskal Autonomia Erkidegoko Agintaritzak Aldizkarian argitaratzeko agindua eman zuen joan den abenduaren 23an Miren Azkarate Kultura sailburuak. Zerrenda horretan irakur daitezkeen izenen artean, Andres Arizkorreta, Mikel Bujanda, Jean Etxegoin eta Erramun Osa dira aholkulari lanetan aurreko batzordean ere bazeuden bakarrak. Estreinaldia izango duten gainerakoen artean, berriz, aski ezagunak diren hainbat lagun daude: Kike Amonarriz, Bernardo Atxaga, Andoni Egaña, Lourdes Oñederra, Ramon Saizarbitoria eta Jon Sarasua, besteak beste.

Enpresaburuak, unibertsitate eta euskaltegi irakasleak, kazetariak, idazleak, ikertzaileak, hizkuntzalariak, bertsolariak, soziologoak... ezagunak izan ala ez, euskara gaur egun-



EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA. 1998ko ekainaren 24an onartu zuen EAEko Euskararen Aholku Batzordeak. Plan horren garapenaren jarraipena egitea da batzorde horren lanetako bat.

go erronka eta teknologia berrietara egokitzeko lanean, hainbat arlotan dabilta denak, eta batzordekide gisa dagozkien lanak bi urtez betetzeko konpromisoa hartu dute: hizkuntzaren normalizazioan diharduten erakunde publiko zein pribatuaren ahaleginak eta ekintzak aztertzen eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapena jarraitzen.

Kopuru aldaketa

Kide berriak izendatzeaz gain, 30 lagunetan finkatu du Kultura sailburuak bere ardurapeko Euskararen Aholkularitza Batzordeko Administrazioz kanpoko kideen kopurua. 1999an, gizarte ordezkariak 25 kidetik 38ra aldatzea erabaki zuen Jaurlaritzak. Orain, berriz, 30ean utzi du.

Bestalde, Hezkuntza, Uniber-

tsitate eta Ikerketa Sailak eta Euskal Udalen Elkarteak ordezkari berri bana aukeratu dute: Abel Ariznabarreta Zubero Hezkuntza sailburuordea eta Jon Iñaki Azkarraga, hurrenez hurren. Horiek ere biharko bileran izango dira, euskararen garapenarekin zerikusia duten gainontzeko erakunde ofizialen ordezkariekin batera, euren aurrekoen lanari segida ematekotan.

Erredakzioa | DONOSTIA

Euskararen Aholku Batzordea 1982an sortu zen, dekretu bidez. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari atxikitako organo bat da eta bi funtzio nagusi ditu sorreratik: alde batetik, hizkuntza normalizazio lan egiten duten erakunde eta taldeekin harremanak izatea; bestetik, parte hartzeko gunea izatea euskararen erabilera normalizatzaren alde lan egiten ari diren erakunde pribatu eta adituentzat: «Horrela bermatu egingo da hizkuntza normalizazioaren inguruan izan daitekeen ikuspegi aniztasuna ordezkatuta egotea». «Herrian sendo errotutako organismoe-

Jaurlaritzaren aholkulariak

EUSKARAREN A HOLKU BATZORDEAREN HELBURUAK ETA FUNTZIOAK. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia izan du azken urteetako lan garrantzitsuena

tako eta erakundeetako ordezkariak eta euskararen arloan ezagunak diren lagunak» ere izango dira Euskararen Aholku Batzordeko kideak.

Izan ere, hizkuntza normalizazio buruzko ikuspegi aniztasuna islatu nahi du Euskararen Aholku Batzordeak. Euskal Herri osoko kideak dira bertako kide, «Euskal Herriaren batasun soziokulturalari eusteko eta bizitasun etnolin-guistikoa sustatzeko».

Hala ere, aurrerago, Euskararen Aholku Batzordeak funtzio gehiago ere hartu ditu bere gain. Horien artean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Plan hori egiten laguntzea eta planaren garapenaren urtez urteko jarraipena egitea izan da Euskararen Aholku Batzordearen lan nagusietakoa azken urteetan.

Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean onartu zuen Euskara Biziberri-

tzeko Plan Nagusia, «euskararen normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa, hizkuntza politika egiten diharduten herri aginteei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarritzko tresna».

Euskara Biziberritzeko Planak helburu nagusi bat du: «Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskararen aldeko urratsak areagotzea. Hizkuntza komu-

nitarearen eskubide kolektiboak ukatu gabe, herritar bakoitzaren hizkuntza eskubideak guztiz errespetatuak izan daitezen lortzeko urratsak areagotzea. Horretarako neurriak erabakitzea eta bultzatzea».

Helburu nagusiaz gain, hiru helburu estrategiko ditu: euskara belaunaldiz belaunaldi ondorengoetaratzea, familiarren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzaren bidez; euskararen erabilera sustatzea, euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera eremu batzuetara zabalduz; eta, azkenik, euskara elikatzea, liburu, irrati, egunkari, aldizkari, telebista eta abarren bidez.

OSAERA

Jarraian, Jaurlaritzak izendatutako Administrazioz kanpoko EABko osoko 30 kideak ageri dira.

JARRAITZEN DUTENAK

- **Andres Arizkorreta** (CAFeko zuzendari nagusia)
- **Mikel Bujanda** (Euskal Herria Irratiko zuzendaria)
- **Jean Etxegoin Elizagarai**
- **Erramun Osa** (Ikastolen Elkartearen kidea)

KIDE BERRIAK

- **Jesus Alberdi** (enpresaburua)
- **Luzia Alberro** (Deustuko Unibertsitateko irakaslea)
- **Sagrario Aleman** (Arturo Kanpion euskaltegi irakaslea)
- **Kike Amonarriz** (soziologoa eta ARGIAko sustapen arduraduna)
- **Jose Ignazio Arakama** (Getxoko euskara teknikaria)
- **Xabier Artola** (EHUko irakaslea eta IXA taldeko kidea)
- **Andoni Egaña** (bertsolaria eta idazlea)
- **Igone Etxebarria** (Labayruko kidea)
- **Alberto Garrido**
- **Aitziber Iartza** (kazetaria)
- **Fernando Iraeta**
- **Bernardo Atxaga** (idazlea)
- **Gonzalo Larruzea**
- **Aitor Lopez Aberasturi** (Kaixo! atariaren sustatzailea)
- **Jose Luis Mendoza** (Nafarroako Euskararen Kultur Elkargoko burua)
- **Laura Moragues**
- **Joxe Mari Mujika** (Topaguneko lehendakaria)
- **Antxon Narbaiza** (filologoa)
- **Lourdes Oñederra** (hizkuntzalari)
- **Fernando Plazaola** (EHUko irakaslea)
- **Ramon Saizarbitoria** (soziologoa eta idazlea)
- **Jon Sarasua** (irakasle eta bertsolaria)
- **Ana Urkiza** (idazle eta EIEko idazkaria)
- **Eguzki Urteaga** (Hizkuntza Kontseiluko zuzendaria)
- **Xabier Usabiaga** (kazetaria)
- **Entzi Zubiri**